etxalde
nekazaritza iraunkorra
49
2019 martxoa



I. Agroekologia Sinposioa ospatu dute Zornotzan

---

«Hobeki bizi hemengoa janez eta edanez»

---

Hastear Agroekologia ikastaroa EHNE Bizkaiaren eskutik

# «Saber dejar fuera el logo y trabajar por el mismo objetivo es nuestra gran fortaleza»

**Mireia Vidal Gonzalez**

# AURKIBIDEA:


3 · Editoriala: «Hacia una política alimentaria común en la Unión Europea»

4 · «Landa lurra, udalerrien erronka», Alazne Intxauspe eta Imanol Esnaola

6 · I. Agroekologia Sinposioa ospatu dute Zornotzan

10 · LAHARDEKI propone la creación de un marco estable a la Diputación y al Gobierno para abordar la cuestión del matadero

11· Los consumidores votan las características de la leche que quieren consumir

13· Javiert Torre seguirá con la presidencia de UAGA

14 · «Hobeki bizi, hemengoa janez eta edanez»

15· Pirenaika behiak interesa sortzen du Iparraldean

16 · «Para mi es la gran riqueza de la plataforma, saber dejar fuera el logo y trabajar por el mismo objetivo» Mireia Vidal González

20· Brasil: Por justicia para Marielle y para los muertos de la minería, mujeres del MST paralizan el tren de Vale en Mina Gerais

22 · Laburrean

24 · Itoitz-Nafarroako kanala ureztatz-sistemak zaurgarriago egin du Nafarroako nekazaritza

25· El Tribunal General de La Unión Europea, anula las resoluciones de la EFSA por las que se deniega el acceso a los estudios de toxicidad y de carcinogenicidad de la sustancia activa glifosato

26 · Hastear Agroekologiako ikastaroa EHNE Bizkaiaren eskutik

29 · Formazioa




Martxoak 8ko mobilizazioak

# Hacia una Política Alimentaria Común en la Unión Europea

Este es el titular del informe presentado por el colectivo IPES FOOD en el marco del debate sobre la reforma de la Política Agraria común en la Unión Europea. Destacan que el documento no es simplemente una visión de un grupo de expertos; sino que se basa en la inteligencia colectiva de más de cuatrocientas personas agricultoras, responsables empresariales del ámbito alimentario, activistas de la sociedad civil, científicos y responsables políticos que han sido consultados durante un proceso de investigación y reflexión que ha durado tres años. También es destacable que el informe en cuestión ha sido respaldado por el Parlamento Europeo, el Comité Económico y Social Europeo, el Comité de la Regiones e importantes coaliciones de la sociedad civil. El informe subraya sobre todo los ejes sobre los que debiera construirse una nueva visión de la PAC en base a una Política Alimentaria inclusiva y generadora de nuevos consensos más amplios. Centra en cinco ejes la necesidad de crear una nueva arquitectura de gobernanza para los sistemas alimentarios: garantizar el acceso a la tierra y al agua y garantizar una gestión responsable de las mismas; reconstruir agroecosistemas sanos y resistentes al clima; promover dietas suficientes, sanas y sostenibles para todas las personas; construir canales de comercialización más justos, cortos y transparentes; y poner el comercio al servicio del desarrollo sostenible. Contempla el desarrollo de todos estos ejes meticulosamnete planeados a corto, medio y largo plazo, acompañados con nuevas formas de hacer política, anteponiendo el bien público a los intereses financieros de los lobbies de presión. Y otorga un papel fundamental a las políticas públicas locales en la implementación de este nuevo enfoque, porque buscan invertir la dinámica de imponer desde arriba, priorizando construir un nuevo modelo de construcción desde lo local. Y es en esta parte donde los planes estratégicos regionales adquieren una enorme importancia en el marco del debate de la PAC. Llama poderosamente la atención la ausencia de debate y participación tanto en el Gobierno de Gasteiz como en el de Iruñea, y no es debido a los procesos electorales puesto que el proceso de debate está en marcha en el marco estatal. Llevamos meses sin conocer los resultados de la encuesta que promovió el Gobierno Vasco, la ausencia de los debates de fondo son inexistentes y mucho nos tememos que todos los esfuerzos institucionales se centren en mantener el actual marco de aplicación de la PAC. El único antídoto es seguir insistiendo que es posible articular cambios, es posible seguir generando nuevas mayorias en torno a una alimentación sana y una producción sostenible; y sobre todo es una vía para seguir reclamando y definiendo políticas públicas para el bien público, y de paso ir construyendo nuevos modelos de gobernanza pública desde lo local hasta el marco europeo.

etxalde
nekazaritza iraunkorra

**etxalde@etxalde.eus**
**www.elikaherria.eus**
Lege Gordailua: SS 50-2015

bidean | euskararen bidean

Editorea: Etxalde Nekazaritza Iraunkorra elkartea
Inprenta: Gertu S.Coop
Maiztasuna: Hilabetekaria
Aleak zenbakiko: 5.600

# Landa lurra, udalerrien erronka

"Lurra eta zoruak funtsezkoak dira Lurrean bizitzari eusteko. Zorua (lurra) baliabide natural berriztaezina da, eta narriatzen denean ezin da berreskuratu. Zorua narriatzea mehatxu erreala eta hazkorra da, lurraren erabilera eta kudeaketa era jasanezinek eragiten dutena..."

Sarrerako hitzak FAOrenak dira, Nazio Batuen elikadura eta nekazaritzarako erakundea. Halaxe jarraitzen du oharrak: "Zoruaren narriatze tasak, egun, etorkizuneko belaunaldiek bere beharrak asetzeko izango duten gaitasuna mehatxatzen du".

Zoru naturalak gorde eta kudeaketa iraunkorra ematea iraunkortasun helburu bihurtu dira mundu osoan. Alta, herri garen aldetik, badagokigu maila horretan helburuak zehaztu eta ekintza plan zabal eta adostuak bideratzea.

Lehen auzia hortxe dago. PAC delako Europako nekazaritza politika bateratuaren lehen garaietatik (1962) gure ekonomia elikadura hornikuntza ziurtatua izateari lotuta garatu dira, nazioarteko ekonomiak eta gure ahalmen ekonomikoak elikadura bermatuko zutelakoan.

Uste horrek elikagaien finantzazio izugarria eragiteaz gain, arazo saldoa ekarri du katean, hala nola, baserritar pobreenen gosetea, ekosistemak, lurzoruak eta atmosfera kutsatzea, edo tokian tokiko komunitateen desplazamendua, besteak beste. Denak balio du mendebalde aberatsaren gutiziak asetzekotan.

Ondorio horiek ezagunak ditugu. Aldiz, badira aitortzea gogoko ez ditugun beste ondorio batzuk. Izan ere, Euskal Herriaren kasuan milaka ustiapen galdu dira, izan klima hezean zein mediterraneoan. Hain izan da handia baserritarrari eta hauen lanari egin zaien gutxiespena. Bertoko produktu askok galdu dute elikaduran zuten presentzia edo eragiten zuten ekonomia. Ondorioak, ordea, ez dira hor amaitzen. Edonongo elikagaien hornikuntzarekin eraiki dugun sistemarekin konfiatuta, bertako landa-lurrak arduragabe narriatzera edo zuzenean artifizializatzera eraman gaituzte. Artifizializazioan zenbait euskal zonalde txapeldun gertatzen ari da, kostalde hezean batez ere. Berriki Lurzaindiak salatu du Aturri elkargoan nekazaritza lurrak %21 murriztu direla 2000-2010 epealdian. 1990 eta 2018 artean Euskal Herrian 43.777 ha. artifizializatu ditugu, eta galera hori azalera menditsuena duten herrialdeek nozitu dute gehien (Bizkaia, Gipuzkoa eta Lapurdik).

Maila lokalean, gure etorkizuna marraztean zehazten al dugu zenbat landa lur behar dugun gure herritarrak modu iraunkorrean elikatzeko? Beharbada hortxe dago auziaren muina. Udalerrien eta eskualdeen etorkizun iraunkorraz gogoeta egiten dugunean ez dugula elikadura hornikuntza iraunkorraren xedea aintzat hartzen, eta ondorioz, ezta horretarako dugun lurzoru naturalen ondarea ere.

Mendi-basoak eta naturaguneak gordetzeak ez du naturarengandik behar duguna asetzen, eta tokian tokiko elikagaigintza ere bada horren guztiaren zutabeetako bat: aintzat hartzen ez dugun zutabea. Baina horretarako landa lurra gorde eta bere balioa aitortu behar zaio. Izan ere, landa lurra ez da eraikitzeko orube bat, horren aurretik biharko gure elikadura burujabetzaren oinarria da.

Hiri antolamendurako plan orokorrak (HAPO) izan ohi dira udalerrietan burutzen diren planifikazio ariketa zabal, konplexu eta sendoenak. Bertan zehazten dira hirigintza aldetik udalerriaren premiak eta horiek asetzeko egitasmoak zein izango diren. Kontu egin Nekazaritza Politika Bateratua indarrean



Alazne Intxauspe - EHNE Bizkaia



Imanol Esnaola - Gaindegia

dagoenetik elikadura iraunkor eta osasuntsua gure agendatik desagertu bada, horrek nola baldintzatu duen lurralde antolamenduaren gaineko gure ikuspegia. Jaso dezatela eskua herritarrak elikatzeko helburuz, HAPOan behar adina lur babestea erabaki duten udalerriek. Indarrean dauden legediek horretarako bide eman arren eztabaida hori urrun egon da gure jendartetik (aipatzekoa Eusko Legebiltzarrak 2008an onartutako Nekazaritza eta Elikagaigintza legeak landa lurrari aitortzen dion garrantzia, landa-lurraren defentsan baliatzen ez dena). Onar dezagun.

Hirigintza planeamenduetan, "ez urbanizagarri" izendatzen diren eremuak identifikatzera jo ohi dugu. Azken bi hamarkadetako bilakaerari so, ordea, eremu "ez urbanizagarria" kategoria malgua dela ikusi dugu, hazkunde urbanistikoak behar duenean bere egiten duen eremua, nahiz eta horretarako lur lau eta goldagarria desegin.

Landa lurra, ordea, mugatua da, eta are mugatuagoa oraindik baratzegintzarako eta goldatzeko lur laua. HAPOaren moduko eragiketa batek biotopo eta gainerako natura berezitasunak betikotzeko ahalegina egiten duen moduan, landalurra betikotzeko ahalegina ere egin beharko luke, galerak ahalik eta gehien murriztuz, eta dagoeneko eraikita dagoena berrerabiliz.

Gaindegiak eta EHNE-Bizkaiak bide horretan lagungarri gerta daitezkeen baliabide dokumentalak garatzen dihardugu. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Mundu Bat fundazioaren babesaz hirigintza planeamenduan elikadura arloko aldagai nagusiak dokumentatu eta eskuragarri jartzeko eredua garatzen ari gara. Landa lurrari dagokionez Euskal Herriko hirigintza praktikak iraunkortasunerako helburu nagusiekin lerratzen hasteko garaia da, eta horrek berak, alderdi hauek dokumentatzea eskatzen du.

Egiten ari garenak izaera esperimentala du eta Karrantza, Elorrio, Errigoiti eta Larrabetzun frogatu dugu. Etorkizunean Euskal Herriko udalerrien HAPO zein elikadura plan estrategikoetan baliatzeko moduko dokumentazio eredu estandarra eraikitzera iristeko lehen proposamena egin nahi genuke.

Bizi garen garai honetan, egungo egoera erronka ilusionagarria bihurtu zaigu. Udalerri eta eskualdeak gai izango ote dira bere landalurra ongi kudeatuz bere biztanleak elikagai osasuntsu eta iraunkorrez hornitzeko? Ukaezina da elikagai osasuntsuen premiaz gain, zirkuitu laburrek, landa lurraren kudeaketak, elikagaien transformazioak, baserriratze berriek, elikadurari lotutako enplegu sorrerak... lehen mailako ondasuna dakartela udalerri eta eskualdeetara. Etorkizunean euskal udalgintza eredu izan daiteke elikadura eredu osasuntsu eta iraunkorra eskaintzeari dagokionez, baldin eta landa-lurrari dagokion eginkizuna aitortzen badio. Eta burujabeago ere izango gara, bide batez, gure esku dago.



# I. Agroekologia Sinposioa ospatu zuten Zornotzan

Martxoaren 14tik 16ra bitartean Zornotzako Barnetegian Agroekologia sinposioa burutu da Ehne Bizkaia eta Mundubaten eskutik. Sinposio honen helburu nagusia baserritarren arteko jakintzen eta egiteko eren elkartrukea bultzatzea izan da, horretarako programazio zabala osatuaz.

Sinposioak iraun dituen bi egun eta erdiak, hiru ardatz nagusitan banatu dira. Lehenengo egunean "Lurra eta honen emankortasuna" izan da eztabaidagai. Bigarren egunean "agroekologiako praktikak", Kuban eman den prozesu agrogeologikoa erreferentziatzat hartuaz hasi eta honen ondotik Ipar Euskal Herriko, Laborantza Ganbarako prozesua eta Lorearen metodologia azalduaz eta sinposiuna amaitzeko, hirugarren egunean, elikadura estrategiei buruz hitz egiteko mahai ingurua osatu da bertako esperientziak, Durangaldean ematen ari den prozesua edo Zeberioko nekazalgunea kasu, Valentziatik ekarritakoak eta unibertsitatearekin dituzten aliantzatik elkarrizketan jarriaz.

Gai hauei ertz ezberdinetatik heldu ahal izateko, hainbat hizlari izan dira topaketa honetan. Esaterako, Biofertilizanteak egiten dituen Vitaveris elkarteko kide den Jesus Eslavak, lurraren bizia eta emankortasuna hobetzeko pista batzuk eman zituen. Lurraren hiru dimentsioei buruz hitz egin zigun, 3 Mak deitu zituenak, mikroorganismoak, materia organikoa eta mineralak alegia. Lurreko bizia ulertzeak duen garrantzia aipatu zuen, izan ere, askotan nahastu egiten baikara fertilizante batek edo besteak funtzionatuko duela pentsatuaz eta funtsean 3 M hauen arteko orekan omen dago gakoa. Aldi berean, airea eta uraren arteko orekaren garrantzia ere azpimarratu zuen, hauek gabe mikroorganismoek ez baitute bizitzerik.

Trebiñoko Pakok berriz, lurreko bizia eta emankortasuna era praktiko batetik ulertzeko diagnostiko bat egiten lagundu zigun. Teknika ezberdinak erabiliaz, karbonato testa, salfumana, ur oxigenatua,… lurrak zer materia organiko eta zer ph daukan jakiteko.

Larrauriko Garbiñe Belloso baserritarrak ere zer lur mota dugun ezagutzeak duen garrantzia azpimarratu nahi izan zuen, honen araberako praktikak egitea komeni baita. Hondar askoko lurra badugu

ongarritzea kantitate txikiagokoa baina maiztasun gehiagokoa beharko da eta aldiz, lur buztintsua badugu, ongarritzea ugariagoa izan daiteke kantitatean, lurrak xurgatzeko gaitasun gehiago baitu. Lurra aro egokian egotearen garrantzia ere aipatu zuen eta ongarri berdeen eta akoltsatuei buruz ere solastu zen. Udaberriko akoltsatuek dituzten eragozpenez mintzatu ziren, izan ere hezetasun gehiegi mantentzen dute eta egokiagoa litzateke lurra berotzen hasitakoan, akoltsatuak egiten hastea, ekain-uztail aldera hasi eta negu bukaera arte erabiltzea.

Biolurreko Leirek berriz, azaldu zigun nola den garrantzitsua beharren arabera ongarritzea. Udaberrian nitrogeno gehiago behar dugunez ongarri ondo ondu gabeak erabiltzea komeni da. Egin duten ikerketa batetik atera dituzten ondorioi erreparatuz, esan zigun, normalean ondo ondutako ximaurra erabiltzeko ohitura dagoela eta hau udaberrian erabiliz gero duen karbonoak lurrean dagoen nitrogeno apurra bahitzen duela. Beraz, ximaur berriagoak erabiltzea komeni da udaberrian, hilabete edo hilabete eta erdiko ximaurrak, 1 edo 2tan buelta emanak. Ondo ondutako ximaurrak berriz udazkenean erabiltzea gomendagarriagoa da, nitrogeno gaitasun handia baitute eta horrela udaberrirako erabilgarri egongo litzateke.

Artadi hazitegiko Geert sistema agroforestalei buruz mintzatu zen. Latinoamerikatik datorren kontzeptu bat eta Galizan ere lantzen ari direna. Zioenez, rotazio eta bidertsifikazioaz hitz egiten dugunean maiz baratzeez soilik hitz egiten dugu baina basogintza alorrean ere plantea daitekeen kontu bat da.

Erlezaintzaren gaia ere jorratu zen sinposioan. Sevillako Angelek azaldu zigun erlezaintza garaikidearen historia eta batez ere barroaren aurka zer teknika erabiltzen ari diren. Barroa gehiena kumeetan kontzentratzen ari dela eta beharrezkoa dela kume horien kudeaketa egokia egitea.

Abeltzantzan ekologikorantz emandako trantsizioaz mintzatu zitzaigun berriz, Kantabriatik etorritako Gaspar. Bere hastapenetan intensifikaziorantza abiatu zena baina momentu batean eta Confédération Paysanneko jardunaldi batzuk eta Normandiarako bidaia bat tarteko desintifikazio hitza lehenengoz entzun zuena. Behi kopurua jaisteko erabakia hartu eta autonomia irabaziaz konturatu zena kooperatibarekin zuen zorra kentzen ari zela eta desintentsifikazioko bide horretan behin sartuta beretzat ekologikokorako transizioa ez omen zen batere zaila izan. Natural joan zen dena. Dagoeneko 7 urte daramatza esne ekologikoa egiten eta orduan Lactalisek bakarrik zeukan esne ekologikoa jasotzeko ibilbidea Galiziatik hasi eta Kantabriaraino eta momentuan hiru dira Kantabrian 15 ekoizle ekologikoen esnea jasotzen duten enpresak. Bere ustez, bere proiektuari trasformazioko zatia falta zaion arren , esne ekologikoaren salmenta aukera bezala ikusten du hurrengo bi hamarkadetarako.

Etxeko segida hartzeari buruz berriz, Zamorako Angelesen hitzaldia izan genuen. Enpresaritzan ikasketak egin eta banku batean lanean aritu ostean, familiako etxaldera bueltatzen erabaki zuen anaia eta aita eta amarekin ardi gazta ekologikoko proiektu batean. "Queso zamorano" jatorri izendapenaren barruan daude eta burokraziarekin buruhauste ugari izaten diren arren, jatorri izendapenean fedea du. Bere gurasoek beti egin dute bertako arraza batekin lan , Txurrarekin hain zuzen ere , maneju nahiko estentsiboan eta ekologikora pasatzea ez omen zen zen zailtasun bat izan. Inguruan aldaketa batzuk ikusten dituen arren oraindik gehiengoa produktibismoaren logiketan sartua egoteak kezkatzen du, batez ere jende gaztea baita.

Baserritarron artean ere, komunikazioaren garrantziaz hitz egin zigun, Basortu elkarteko Marrek. Talde lanaren garrantziaz eta taldean lan egiten ikastearen garrantziaz. Kolektibo batean lanean ari zarenean pentsatzen duzuna esatearen garrantzia azpimarratu nahi izan zuen. Norberak duen idea bat kolektibo batera botatzen duzunean, ideia horrek aldaketak izango dituela ulertzea eta onartzen ikasteak duen garrantzia.

Egun hauek borobiltzeko, bi bisita antolatu ziren, bata Zeberioko Larizgoitia anaien ortuetara eta bestea Bizkaigane abeltzantza ekologikoko elkartera.





**Lehenengo Agroekologia Sinposio honetako parte hartzaileekin hitz egiteko aukera ere izan genuen, hemen beraien iritzia topaketa hauen inguruan.**

**Peio Erromoko baserritarra.**
Sinposio bat zer den jakin gabe etorri naiz, baina gauza interesgarriak jorratuko zirela argi nuen aldi berean. Eta izugarrizko esperientzia izan da, oso pozik noa, Port Aventuran baino hobeto pasatu dut hemen!.



**Mikel Gomez, Getxo.**
Me animaron a venir al Simposio. Yo realmente vengo de una experiencia de cooperación en Sudamérica y después de casi 2 años y me he metido en el mundo de la agricultura. Ahora más profesionalmente quiero desarrollarme en el desarrollo rural y cooperación y me parecía interesante poder acudir a este encuentro y adquirir la información. Ha sido una buena oportunidad.



**Clara Valiente, Ingeniera agrónoma de Francia.**
Actualmente formo parte de un proyecto hortícola en Zarautz, es por lo que me pareció muy interesante, tanto a nivel profesional como a nivel personal. Siempre es positivo disponer de espacios donde poder intercambiar saberes con gente del sector. Y al no ser de aquí además me parecía un espacio idóneo para conocer de primera mano la situación del movimiento agroecológico aquí.



**Borja Fernández de Pinedo, apicultor.**

Soy parte del proyecto colectivo de Etxebarrie Baserria en Artea. El motivo por el que he decidido venir es para mantenerme informado y participar activamente. Salgo de este encuentro reconfortado y con nuevas experiencias para poner en práctica.

**Amets Ladislao, Bizkaigane proiektuko abeltzaina.**

Oso interesgarria iruditu zait Sinposioa. Tailer guztiz praktikoak behar beharrezko ikusten ditut, eta espazio honek guri zuzendutako tailerrak eskaini dizkigu. Hau da, guregandik gureganako transmizioan oinarritua. Gainera gaiak interesgarriak izateaz gain jendea ezagutzeko eta beraien proiektuen berri izateko gune aproposa da. Ni oso pozik irtetzen naiz.

**Koldo Rey, Bionekazaritzako koordinatzailea.**

Sinposioaren programa oso interesgarria iruditu zitzaidan eta elkartzea beti oso interesgarria dela iruditzen zaidalako. Azkenean jende ezberdinarekin elkartzen zarenean sortzen dira ideiak, gauzak eta ezagupen berriak. Eta hori izan da aurkitu duguna azkenean. Jende ezberdinarekin egotea, pilak kargatzea... Ideia askorekin eta motibazioa handiarekin irtetzen gara hemendik.



**Cristina Galeano.**

He venido al Simposio, primero porque desde hace mucho que quiero ser agricultora pero no tengo acceso a la tierra. Mi familia al ser migrante de campo a ciudad a mi me queda la amnesia de campo, y este tipo de encuentros los veo necesarios. Estoy en proyectos de regeneración de bosque autóctono y comestible en la zona peri urbana de Gasteiz. Mi intención es que en un plazo de tres años poder estar incorporada al sector. Por lo que venir aquí y ver gente de distintos territorios apostando por un modelo sostenible me ha encantado.

# LAHARDEKI propone la creación de un marco estable a la Diputación y el Gobierno para abordar la cuestión del matadero



A finales de febrero se celebró la asamblea de LAHARDEKI en la que los miembros de la junta explicaron los pasos dados desde la anterior asamblea y los pormenores de la reunión que celebraron el 7 de febrero con el Gobierno Vasco.

En la misma, desde el Gobierno traslado que no veían viable el proyecto básico que presento LAHADERKI (proyecto que se ajusta a las necesidades actuales de sacrificio en Bizkaia, en torno a las 8.000 cabezas anuales). Desde el Gobierno se instó a LAHARDEKI a redimensionar el proyecto, hacia un matadero con una capacidad menor, unas 15 cabezas diarias con líneas muy sencillas para abaratar costes de inversión. También se trasladó desde el Gobierno que el proyecto debía de renunciar a la comercialización y a las salas de despiece y formación. Y en cuanto a una posible ubicación, el Gobierno se inclina por una lo más occidental posible de Bizkaia.

El malestar por este planteamiento del Gobierno fue patente entre los participantes en la asamblea y se puso de manifiesto que el mismo no responde a las necesidades del sector cárnico de Bizkaia. Ante este nuevo planteamiento del Gobierno la asamblea insto a solicitar una reunión con la Diputación para trasladarle la necesidad de su implicación en esta cuestión.

Reunión que ha tenido lugar el 12 de marzo en la que estuvieron presentes la Diputada de Sostenibilidad y Media Natural, Elena Unzueta, la Directora general de Agricultura, Maite Peñacoba, junto con los miembros de la junta de LAHARDEKI y representantes de los sindicatos agrarios Ehne-Bizkaia y Enba. En la misma la Diputación recordó que aunque la competencia es del Gobierno son conscientes del déficit que supone para el sector ganadero Bizkaia el no contar con un matadero y también trasladaron su sorpresa ante el planteamiento del Gobierno de renunciar al despiece y comercialización (claves para la rentabilidad del proyecto). Se acordó la creación de un marco conjunto en que también participe el Gobierno Vasco.

# Los consumidores votan las características de la leche que quieren consumir

La iniciativa social ¿Quién es el Jefe?, la Marca de los Consumidores. Iniciativa que tiene su origen en el estado francés donde en la actualidad comercializa más 20 productos ha dado a conocer su campaña de desarrollo en el estado español. Reuniendo a un grupo de consumidores para descubrir y empezar a votar los criterios de elección que definirán la primera leche que se producirá y distribuirá en el estado español de acuerdo con los gustos y necesidades concretas de los consumidores. Han comenzado con la leche y posteriormente lo harán con los huevos y el aceite de oliva. Estos 3 productos agrarios han sido los elegidos para comenzar el desarrollo de esta iniciativa.

En la última gran crisis de precios a nivel europeo, con precios en estado francés de 0.26-0,27 céntimos, un grupo de ganaderos de una zona de montaña trasladaron a un responsable de Carrefour, que con una pequeña subida de precios al consumidor se podía salvar la situación del sector. Así se empezó a gestar esta iniciativa, que en la actualidad comercializan 80 millones de litros de pequeñas granjas con un precio de 0,39 céntimos al productor y 0,99 al consumidor. Una empresa transforma la leche y Carrefour apoya el proyecto pero no tiene exclusividad, por lo que también se vende en otras cadenas de distribución.

Para que los consumidores puedan decidir su leche ideal han publicado un cuestionario en la web https://lamarcadelosconsumidores.es/productos/leche/ donde se podrá votar hasta el 30 de abril. El cuestionario permite decidir sobre cuestiones como: Origen de la leche, remuneración de los productores, alimentación y pastoreo, bienestar animal y libertad, alimentación, sin aceite de palma, alimentación sin transgénicos, apoyo a las muy pequeñas granjas familiares, embalaje y apertura del producto.

En el cuestionario según se va optando por las diferentes opciones el PVP se va incrementando y en buena lógica lo mismo ocurre con el precio a las personas productoras.

Según los resultados de la votación que se recogerán a finales de abril, se producirá la leche con las características elegidas y se distribuirá en los principales supermercados. Esta iniciativa parecer ser que ya tiene atado con una cooperativa de Galicia la posibilidad de producir y envasar la leche tipo que resulte del cuestionario así como la comercialización,

Según la impulsora de la iniciativa Annaïck Locqueneux García “la fuerza del consumidor es imparable y que la mejor manera de saber lo que consumimos es que digamos lo que queremos. Esta nueva manera de concebir un producto revoluciona el mundo agroalimentario porque implica directamente al consumidor. La marca de los consumidores es una iniciativa social y colectiva que por primera vez da voz y voto al consumidor para decidir lo que quiere consumir, a qué precio y dónde quiere que vaya su dinero, al mismo tiempo que comprueba en tiempo real el impacto económico correspondiente a los criterios de su elección. Cada uno promueve así un comercio más justo y sostenible, y por lo tanto un consumo más inteligente”.

El objetivo de la marca de los consumidores es cambiar completamente las reglas de juego del mercado, basándose en criterios de transparencia, equidad, educación, ética, respeto, reconocimiento y responsabilidad.





# AURKEZPEN
## EKITALDIA

**MARTXOAK 28**
**13:00**
**Berrizko Kultur Etxea**
(Geltoki Kalea, 3, 48240 Berriz, Bizkaia)

Atsegin handiz gonbidatu nahi zaituztegu Durangaldeko Turismo eta Elikadura Estrategia Planak aurkezteko egingo dugun ekitaldira.

*Zatoz eta ezagutu bi proiektuak!*

---

## ACTO DE
# PRESENTACIÓN

**28 DE MARZO**
**13:00**
Casa de Cultura de Berriz
(Geltoki Kalea, 3, 48240 Berriz, Bizkaia)

Es un placer invitaros al acto de presentación de los Planes Estratégicos de Turismo y Alimentación.

*¡Ven y conoce ambos proyectos!*

Durangaldea

Durangaldea

# Javier Torre seguirá con la presidencia de UAGA

El pasado 19 de marzo se celebró en el Palacio Europa de Vitoria la asamblea general de la Unión Agroganadera de Alava que este año coincidió con las elecciones a la presidencia de la misma. Calificada como pugna inédita, ya que esta carrera de tres candidatos a la presidencia ha movilizado a un importante número de afiliados. En total han sido 268 afiliados y afiliadas quienes han participado en la votación, 87 personas más que en las elecciones del 2015.

Torre fue reelegido con 107 votos y promete que en este nuevo periodo apostará por mantener la línea de continuidad para tratar de culminar los retos para asegurar al sector. Los retos marcados son los siguientes, volver a ser referente en el sector agrario alavés, recuperar el respeto y apoyo de la sociedad e instituciones y mejorar la comunicación con los aliados y sociedad en general.

Las otras listas candidatas a la presidencia de UAGA también han obtenido una cantidad considerable de votos. Por un lado la candidatura presidida por Luis Zaballa ha obtenido un total de 86 votos, y por otra la presidida por César Izar de la Fuente otros 75 votos.



# Ardogintzaren sektoreko 60tik gora euskal enpresa Prowein azokaren hogeita bosgarren edizioan

Edizio honetan, ardogintzaren sektoreko 60 euskal enpresa baino gehiago joango dira azokara, Arabako Errioxako ardoak, Txakolinak edo Euskal Herriko Sagardo Naturala nazioartera zabaltzeko erakusleihorik hoberena dela jotzen baita; gainera, urtetik urtera gero eta upategi gehiagok eskatzen dute bertara joatea.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailak, nekazaritzako elikagaien euskal industria nazioartekotzeko eta sustatzeko duen Euskadi Basque Country estrategiaren barruan, HAZI Fundazioaren laguntzarekin antolatu du euskal enpresa parte hartzaileetako 49ren asistentzia, Euskadi Basque Country markaren barruan talde moduan parte hartuz. Iaz baino bost gehiago dira horrela parte hartuko dutenak. Zehazki, hauek izango dira: Arabako Errioxako 38 upategi (horietako 6 ABRAren standean bilduko dira), Getariako Txakolinaren 7 upategi, Bizkaiko Txakolinaren 2 upategi, Arabako Txakolinaren upategi 1, eta sagardotegi bat.Denek Euskadi Basque Country standaren barruan jarriko dituzte ikusgai beren produktuak, eta standa, 290 m2-koa, Alemaniako azokaren 10 zenbakiko pabiloian egongo da. Azokaren antolatzaileen aurreikuspenen arabera, 2021erako Proweineko erakusketa gunea handituko da bi pabilioi gehiagorekin. Horrek esan nahi du euskal enpresek leku gehiago edukiko dutela eta, beraz, azokan parte hartzeko gero eta eskari handiagoari erantzun ahal izango zaiola.

Euskadiko Elikagaien Industria Sustatzeko 2019rako diseinatu den Planaren lerro estrategikoen barruan kokatzen da Eusko Jaurlaritzak enpresa parte hartzaileei ematen dien babesa. Izan ere, planaren asmoa da azken urteetan sustapen ekintzak egin diren merkatuetan euskal elikagaiak bultzatzea eta enpresak nazioarteko enpresa berrietara zabaltzea.

Euskadiko ordezkaritzarekin batera, Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuorde Bittor Oroz eta Elikagaien Kalitate eta Politikako zuzendari Peli Manterola egongo dira Alemaniako azokan, euskal upategien presentziari babesa emateko.

# “Hobeki bizi, hemengoa janez eta edanez”



“Hobeki bizi, hemengoa janez eta edanez”, lelo horrekin sortu da, duela urte pare bat, Oztibarreko (Baxe Nafarroa) Sabaia elkartea. Famili multxo batetik abiatuz, 150 kide kondatzen ditu orain elkarteak, gehienak Oztibarre ibarrekoak. Kontsumo taldeak hirian aurkitzen badira usu, hemen baserri erdian antolatu da taldea. Manaketa kolektiboak egiten ditu, ahal bezain bat tokiko eta kalitazteko ekoizpenekin (bio, Idoki, AOP…) hotzgailu eta armairuak betetzeko.

## FAMILI MULTXO BATETIK TRESNA KOLEKTIBO BATERA

Elkartea sortu aintzin, Evelyne Mainhaguiet, Sabaiako lehendakaria, Xiberoko kontsumitzaile talde bateko kide zen. Solasez solaz, lagun batzuri aipatuz, manatzen zituen ekoizpenak jaztaraziz, Oztibarren ere talde manaketak abiarazi zituen.

Lan talde bat muntatu zen, Oztibarreko kontsumitzaile eta laborari batzuen artean eta gogoeta sortu : « jende gero ta gehiagok untsa kontsumitzeko axola badute, tokiko ekoizpenak, osagarriarendako onak, kalitatezkoak, lurra, ingurumen eta kabaleak errespetatuz eginak, beraz zer egin gure kontsumen usaiak sentsu onerat bideratzeko eta beste batzueri zabaltzeko ? »

Salmenta zuzena egiten zuten eta kalitatezko sareetan ziren Oztibarreko laborari ekoizleak galdezketatu ondoren, kontsumitzaile taldea muntatzea erabaki zen eta Sabaia 2018ko otsailan sortu zen.

## EKOIZPEN ONEN AUKERA ZABALA

Egun Sabaiakoek hautu zabala badute: fruituak, barazkiak, behi, ahuntz eta ardi esnekiak eta gasnak, haragi freskoa eta sukaldatua, tisanak, erreximentak, eztia, pastak, irinak, garagarnoa, arnoa, ogia, olioa, epizeria… “Libertatea bada. Erosten duzu behar duzuna eta behar duzularik, ez da kontraturik. Ez zira behartua manaketa guzietan parte hartzea” dio Evelyne Mainhaguietek. “Sistema horrekin gure kontsumitzeko usaiak aldatzen dira, Sabaiak frogatzen du hemen berean parade badela gauza onen erosteko, badakigu nundik heldu diren, nola eginak diren, konfiantxazko harremanak sortu ditu laborari eta kontsumitzaileen artean. Ez ginen beti ausartzen etxalderat joaitea ekoizpenen erostera. Orain aski dugu mail bat igortzea manatzeko eta banaketarat joaitea ekoizpen desberdinen eskuratzeko, nehor trabatu gabe”. Astero manaketa desberdinak proposatuak dira eta banaketak bi astetarik egiten dira. Sabaiatarrek eskukaldi bat emaiten dute bai manaketen hartzeko, bai banaketen segurtatzeko. Ikusiz jendeek zer plazerra hartzen duten elkar kurutzatuz haien “erosketak” egitean — beti gustagarria ez den gauza bat —, urtean bi merkatu antolatzen ditu Sabaiak, bat Eguberriz, bat udan. “Beste batzu konbentzitu nahi ditugu errexa dela arduraz kontsumitzea, garestiago ez pagatuz, eta ez urrunago joanez”, azaltzen du E. Mainhaguietek. Elkarteak tailerrak antolatzen ditu ere, etxeko saboia, hortz garbitzekoa edo xanpoina egiteko.

# Pirenaika behiak interesa sortzen du Iparraldean



Iparraldeko Pirenaika elkartea 2016an sortu zen. Geroztik, arraza huni interesatzen dira gero eta hazle gehiago. Oraindik guti dira, 20 bat, bainan, interesa haunditu tuz doa eta berriz ere hazle berriak agertu dira elkartearen azken biltzar nagusian, martxo hasieran Alduden. Nafarroa eta Gipuzkoako behi hazkuntza batzu bisitatu ondoren, talde bat gogoetan hasi zen Euskal Herriko Laborantza Ganbarak bultzaturik. Lekuko arrazaren berpiztea eta Pirenaikak dituen alde onak gogoko zituzten. Dinamika bat abiatu zen eta elkartea sortu.

Haragitako behi tropa ia guziak Blonde d'Aquitaine arrazakoak dira iparraldean. Behi hunen selekzioa oso urrun eraman dela diote hazle ainitzek eta hainbat pundu gaitzesten dituzte : behi sobera haundiak, mendiari ez egokiak, ernari gelditzeko arazoak, erditzeko zailtasunak, etab.

Pirenaika behia hainbat pundutan hobea dela uste dute elkarteko hazleek. Aldiz behi ttipiagoa izanez, eta ahatxeak ere, behi erosleek ez dituzte prezio onean pagatzen eta komertzializatze bide berrien sortzea baitezpadakoa da Pirenaika arraza zabaltzen bada iparraldean. Lan hortan ari da elkartea. Hiru erosle badira taldean : Xiberoko Axuria koperatiba, Aldudeko Belaun koperatiba eta Zuraideko Massonde enpresa. Salbideak sortu dituzte Pirenaika arrazako behi eta ahatxe haragiarentzat, jatetxeetan gehienbat, iparraldean bainan ere Parise eta Bordalen. Bitartekari haueri esker, Blonda ahatxeen prezio berdintsuan saltzen dituzte Pirenaika ahatxeak hazleek.

### SALBIDE BERRIAK JORRATU

Hein ttipikoa izanik ere mementoan, dinamika pollita erakusten du Pirenaika arrazaren inguruko mogimenduak. Ondorioz, interesa pizten die hazle gehiagori. « Hurbiltzen diren hazle berriek Blonda ahatxeen saltzeko zailtasunak aipatzen dituzte, bai Italia bai Espainiari buruz. Behiak ez direla errexki ernari heldu aipatzen dute ere. Batzuk nahi dute mendia gehiago baliatu, goizago joanez eta berantago jautsiz. Uste dute Pirenaikak hainbat erantzun ekartzen ahal dituela », zehazten du Peio Iriart, Zaron hazle eta elkarteko arduradunetarik batek. Berak, behi tropa ia guzia Pirenaikara pasatua du eta errexago dela ibiltzea dio. « Blonda baino behi ttipiagoa izanez, gutiago jaten du, aise heldu da berriz ernari, aise erditzen da — kezka hori ez dugu gehiago—. Oro har, Pirenaika tropa ibiltzea errexago da Blonda baino », Peio Iriarten ustez.

2019ko lanetan, merkatu ikerketa baten egitea helburu du elkarteak : hazle gehiago izanez, ahatxe haragi gehiagoren salbideak aurkitu behar dira ere. Iparraldeko jende eta jatetxeak, bai eta Bordale eta Pariseko jatetxe eta harakindegiak hunki nahi dituzte.

## Mireia Vidal González

# «Para mi es la gran riqueza de la Plataforma, saber dejar fuera el logo y trabajar por el mismo objetivo.»



Natural de La Punta, Valencia. Actualmente es responsable de Jóvenes, agricultura ecológica y soberanía alimentaria en la ejecutiva estatal de juventudes agrarias de COAG. Pero sobre todo soy productora y elaboradora ecológica de viña, olivo y almendro, aunque siempre ha tenido huerta, actualmente solo con huerta de verano. También elabora mermeladas y pates en un obrador artesano y comercializa todo por venta directa en su propia tienda, en mercado municipal y en mercados campesinos.

**¿Cómo nos describirías la realidad agroecológica en Valencia?**

En realidad es que, aunque en ciertos ámbitos estamos muy organizados. El crecimiento del movimiento agroecológico ha sido muy rápido. Esto lo que produce es que estemos gente convencida que somos los que hemos posibilitado esto y por otra gente que se ha quedado fuera de las organizaciones, que hacen sus cosas y que está bien, pero creemos que todas las fuerzas deberíamos de sumarlas.

**¿Porque crees que se ha dado ese crecimiento tan rápido?**

La situación lo facilitaba. Había muchos proyectos que ya estaban incipientes, pero eran batallas constantes... Las movilizaciones del 15M también ayudaron bastante al crecimiento. En esas movilizaciones, allí en la plaza ya se empezó a hablar de asambleas campesinas. En el clima de no encontrar alternativa de consumo, precariedad de la gente joven... Mucha de esa gente se tiró al campo. Nuevas generaciones sobre todo del sector citrícola que querían seguir pero con otro modelo productivo... con todas estas condiciones el movimiento comenzó a volar.

Incluso podría remontarme más atrás. Yo soy de la Punta, que es una pedanía de huerta que pertenece a la ciudad de Valencia. Fue donde nos hicieron la expropiación para la ampliación del puerto. Y ese es el primer movimiento de resistencia campesina. Los agricultores y agricultoras que vivíamos en el pueblo decidimos enfrentarnos a esa expropiación. Y esa fue para mí la primera semilla, porque de allí salió la asociación Per l'horta, que es muy fuerte en cuanto a lucha del territorio en la zona.

Un poco después del 15M, hubo la primera revolución de la gente joven que veía que el campo era una salida, y que se podía transformar el mundo desde el sector primario. Ahí fue cuando todo comenzó a tomar forma, después constituimos ya la plataforma por la soberanía alimentaria. Y en los últimos cuatro años, y gracias a la escuela de acción campesina, mi organización tuvo relevo generacional y nos metimos y comenzamos a movilizar también a nuestras bases. La revolución fuerte ha sido en los últimos cuatro años.

**¿En qué consiste la plataforma por la Soberanía Alimentaria?**



Es una plataforma que no tiene forma jurídica. Es un espacio de confluencia entre distintas organizaciones que tenemos objetivos comunes. Esta Justicia alimentaria, Entrepueblos, Mundubat, Periferias, COAG, Per l´horta, organizaciones de consumidores y consumidoras, personas individuales... y me estaré dejando a mucha gente ya que somos un espacio amplio y diverso. Decidimos que la forma de poder llevar adelante nuestras luchas era dejándonos la etiqueta fuera, nuestro logo fuera. La plataforma se creó hará ahora unos siete ocho años, nosotros aunque entramos a formar parte desde el principio, no tomábamos parte activamente. Pero actualmente no es así. Todas las personas de las diferentes organizaciones nos sentamos a trabajar como si seríamos una única organización. Todos somos plataforma, y todos lo tenemos claro. Para mi es la gran riqueza de la plataforma, saber dejar fuera el logo y trabajar por el mismo objetivo.

**Uno de esos logros de la plataforma son los SPG, ¿en qué consiste?**

Es el Sistema Participativo de Garantía Ecollaures. A través de un proyecto llamado Talaya, lo que hacemos es impulsar iniciativas, y empezamos a impulsar el SPG. Todas las personas que formaban parte de las organizaciones empezaron a formar parte del sistema participativo. Se nos está considerando como la etiqueta ecológica CAE, y hacemos mucha labor de concienciación. Además de crear lazos entre nosotros y empezar a hacer trabajo atorna jons, que sería algo similar a vuestro Auzolan. Cada año intentamos dar pasitos para adelante. Disponemos de guías que para nosotros trazan el camino agroecológico elaborado por nosotros mismos.

**¿Cómo habéis conseguido sacar el Decreto de compra pública?**

Al ser una red tan grande cuando vamos a demandar algo como plataforma, mandamos ese escrito firmado por la plataforma, mandamos ese escrito firmado por todas las organizaciones que conformamos la plataforma. Cuando llega el momento de hacer una iniciativa y le llega toda esa información al Gobierno, le llega la petición por cuarenta grupos diferentes y sienten que la sociedad lo está reclamando. Representamos a mucha gente entre todos y todas.

**¿Cuales consideras los mayores logros de la plataforma?**

Me cuesta decir por dónde empezar. Hemos hecho mucho en poco tiempo. El SPG, y la etiqueta SPG, que es una etiqueta auto gestionada, se considere al mismo nivel que el CAE en la mayoría de mercados, pueblos y espacios... Y que ya cada vez más los consumidores la vayan conociendo es un logro impresionante. El Decreto de compra pública que va a dejar beneficios directos a los productores de nuestro territorio, lo cual posibilita que se sustenten más proyectos en la zona, es un logro grande. La guía de buenas prácticas que se haya podido legislar adaptado a nuestras necesidades y no desde arriba hacia abajo. Ha costado que salga, pero es un logro increíble. Y por último, la jornada del horta a la plaça. Nos pone en el mapa, nos visibiliza. Y además es que la gente viene a comprar. Y esto le demuestra al Gobierno que hay una demanda importante.

**¿Y cuáles son los siguientes retos?**

Tenemos muchísimos. Igual que hemos montado el Consejo alimentario de la Ciudad de Valencia, como estamos viendo que es un éxito, ahora se va a crear un consejo general de la huerta también. Donde participarán productores y productoras, junto con administraciones locales... Por lo que los retos ahora serían apoyar más el tema de los comedores sostenibles, impulsar los bancos de tierra, conseguir más mercados de venta directa y fortalecer los que ya existen. Además del trabajo en ganadería ya que en los últimos años se ha perdido mucho en el sector y hace falta impulsarlo. Y por supuesto nuestro objetivo importante, la eliminación de la fertirrigación. En las zonas de fertirrigación la gente no puede cultivar en ecológico por no disponer de agua limpia. Así que vamos a por ello, a por la eliminación de la fertirrigación para que las hectáreas en ecológico puedan crecer.

**Nos has hablado de la horta l´plaça, ¿qué es?**

Es una jornada que hacemos en la plaza el ayuntamiento el último domingo de enero, todos los años. Salimos productores, artesanos y vamos a vender nuestro producto, pero no solo eso, vamos a hacer la fiesta de la huerta. Los pescadores se traen su barcaza a la mitad de la plaza... Es muy bonito, y eso ha atraído a los consumidores. Podríamos decir que es donde vamos a enseñar el palmito, donde vamos a enseñar todo lo que el movimiento agroecológico está consiguiendo.

**¿Como ves el futuro de la agroecología y la soberanía alimentaria en Valencia?**

Lo veo muy positivamente. En otros momentos lo veía todo negro, pero ahora realmente creo que lo estamos consiguiendo, poco a poco. Aunque queda muchísimo por hacer, pero con buenas prespectivas.



Momento de la mesa redonda donde participó Mireia en el I. Simposio sobre Agroecología Campesina en Euskal Herria

# Harpidetu etorkizunera

## NOLA LAGUNDU DEZAKET?

